

\_\_\_\_\_ jauna/andrea, adinez nagusia  
eta \_\_\_\_\_ NANA, \_\_\_\_\_ telefono-zenbakia duena, bere izenean, edo, adingabea  
izanez gero, \_\_\_\_\_ jaunaren/andrearen izenean, baimena  
ematen dut Judo eta Kirol Elkartuen Euskal Federazioak (aurrerantzean, EJKEF) emandako lizentzia federatua duen  
adingabearen aita/ama/legezko tutore gisa.

### **ERANTZUKIZUNEZ HONAKOA ADIERAZTEN DUT:**

1. Jakitun naiz eta onartzen dut entrenamenduetan eta norgehiagoketan judoan aritzeak COVID-19a kutsatzeko arriskua dakarrela. Nolanahi ere, eskubidea izango dut dagozkion erreklamazioak aurkezteko protokoloetan ezarritako babes- eta komunikazio-arauak bete ez dituzten pertsonen aurka, batez ere pertsona hori norgehiagokan parte hartu duen kirolaria izan bada.
2. Ez dut SARS-COV.2 koronabirusarekin bateragarria den sintomarik (37,5 graduko edo gehiagoko sukarra, eztula, ondoez orokorra, aire faltaren sentrazioa, dastamena galtzea, buruko mina, nekea, lepoko mina, giharretako mina, goragalea, beherakoa) edo infekzioen ohiko beste edozein sintoma.
3. Ez dut positibo eman eta ez dut kontaktu esturik izan COVID-19aren sintomatologia posiblea edo baieztatua duen pertsona batekin edo batzuekin dokumentu hau sinatu aurreko azken 14 egunetan.
4. Irakurri ditut lehiaketaren eta norgehiagokaren antolatzaileak ezarritako segurtasun-protokoloak eta COVID-19aren aurrean higienerari eta segurtasunari buruzko informazio- eta prebentzio-neurriak, eta horiek arduraz beteko ditudala onartzen dut, ezarritako jokabide- eta portaera-jarraibideekin batera. Horrez gain, onartzen dut ekitaldiaren higiene-arduradunak motu propio erabaki dezakeela ni lehiaketatik eta kirol-espazioaren instalazio edo eremu mugatutik kanpo uztea.
5. Jakitun naiz eta onartzen dut COVID-19aren arauak ez betetzea, batez ere sintomak dituzten pertsonekin harreman hurbila eduki izana ez aitortzea edo positibo eman izana ez aitortzea, diziplina-kodearen arau-hauste oso larria dela, eta, ondorioz, lehiaketatik kanpo uzteko zehapena eta denboraldi osoko kirol-lizentzia galtzea ekar dezakeela.
6. Konpromisoa hartzen dut lehiaketa baten aurretik klubari eta federazioari jakinarazteko COVID-19arekin bateragarria den edozein sintoma badut, positibo eman badut edo COVID-19aren ustezko edo baieztatutako edozein kasu positibo egon bada nire familia-ingurunean edo ingurune hurbilean, eta klubeko arduradunei unean-unean bilakaeraren berri emateko.

Informazio hori isilpean tratatuko da, eta birusa kutsatzea eta zabaltzea saihesteko beharrezko neurriak hartu ahal izateko baino ez da erabiliko. Dokumentu hau betetzean, behean sinatzen duenak berariazko baimena ematen dio Gipuzkoako Judo eta Kirol Elkartuen Federazioari datu horiek soilik medikuntzaren eta prebentzioaren ikuspegitik tratatu ahal izateko.

Era berean, dokumentu hau sinatuz, adierazten dut ezagutzen ditudala Gipuzkoako Federazioaren Protokoloak ezarritako babes- eta higiene-neurri espezifikoak, federazio honek antolatutako kirol-jarduera ofizialetan parte hartzen dutenek eta horietan parte hartzen duten federazioko kide diren klub guztiek nahitaez bete beharrekoak.

Lehen aipatutako arauak betetzea parte-hartzaile bakoitzaren eta norgehiagoka antolatzen duen klub edo erakundearen erantzukizuna da, eta Gipuzkoako Judo eta Kirol Elkartuen Federazioak ez du gerta litezkeen kutsatzeen inguruko inolako erantzukizunik izango.

Eta dagozkion ondorioak izan ditzan,

Sin. Partehartzailea edo ama/aita/tutorea